

Alfonso Sastre Kultur Elkarteak aurkezten du

LENGOAIAREN BOTEREA ETA BOTEREAREN LENGOAIA

TopASKEtak 2011 Gogoeta eta eztabaida jardunaldiak

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

Donostia

2011eko Azaroaren 8a, 9a eta 10a

Asteartea, 2011ko azaroaren 8a - 19.00h

● **ANTONIO ÁLVAREZ SOLÍS,**
kazetaria

● **MADDALEN IRIARTE,**
kazetaria

Emanaldia: "Nere amak baleki"
Ramón Agirreren eskutik

Asteazkena, 2011ko azaroaren 9a - 19.00h

● **BELÉN GOPEGUI, idazlea**

● **VICENTE ROMANO,**
komunikologoa

Emanaldia: Andoni Egañaren eskutik

Osteguna, 2011ko azaroaren 10a - 19.00h

● **IÑAKI GOIOAGA, abokatua**

● **ALFONSO SASTRE, idazlea**

Emanaldia: "Todo lo que se nombra existe"
Joxemari Carrereren eskutik

HUMPTY DUMPTYK ARRAZOIA ZUEN

Humpty Dumpty tipo bitxia izango zen, baina ondo zekien zer esaten zuen hau baieztatzen zuenean: "*Hitz bat erabiltzen dudanean, niñ nahi dudana esan nahi du, ez gehiago ez gutxiago*". Horren antzeko printzipioei helduta ziur arrakasta handia izango zuela politika profesionalean, *ispiluaren gure aldean*, asmakizun britainiar baten izena zuen eta Lewis Carrollrek unibertsal bihurtu zuen pertsonaia pragmatiko eta ahaztezinak. Agian ispiluaren atzealdean, Alicia Liddellek bigarren bidaian bisitatu zuen horretan, Erregina Gorriaren balidoarengana iristeko eta, batek daki, garaitzeko ere balioko zion bere trebezia filosofikoak.

Baina Humpty Dumpty ez da lengoaiaren garrantzitsua hiztunaren intenzionalitatea dela pentsatzen duen bakarra. Merleau Pontyk ere antzeko zer edo zer pentsatzen zuen; izan ere, esaten zuen komunikatzeko ekintzetan ikusten eta ulertzen duguna lengoaiaren menpekoea dela, baita gorputz adierazkorraren eta intenzionalaren menpekoea ere. Hala ere, aitor dezagun, Humpty Dumpty filosofo frantziarra baino argiagoa, zehatzagoa eta dibertigarriagoa zen; izan ere, zera zioen: "*Nork agintzen duen jakin beharra dago, hori da dena*".

Azkeneko adierazpen horrek lotzen gaitu, bada, 2011ko TopASKEten izenburuarekin: *Lengoaiaren boterea eta boterearen lengoia*.

Lengoia -horren mugak gure munduaren mugak dira Wittgensteinen esanetan- giza espeziea identifikatzen duen eta gainerakoetatik bereizten duen funtsezko gaitasuna da. Gainera, gainerako animalia espezieengandik bereizten gaituzten gainerako ezberdintasun >>

gehienak gure burmuinean -hizkuntzalaritzaren alde-tik eraturako eta antolatutako burmuina- ezin hobeto bilakatutako lengoaiaren emaitza baino ez dira. Lengoia horren egiturak berezko txantiloak izango liriteke Chomskyrentzat eta beste batzuentzat; Burroughsen filosofia bitxi, mesianiko eta nahiko fantasioarentzat, berriz, "*espaziotik etorritako birusa*", alienazioa lortzeko arau gramatikal eta sintaktiko maltzurren bidez gizakiak kutsatu dituen organismo parasitoea izango litzakete.

Hipotesi estralurtarrak alde batera utzita, tresna boteretsua da lengoia ez bairrik gabe, dela suntsitzeko, dela eraikitzeko ("*benetan idazlea izango banintz, gerra gelditu ahal izango nuke*"), dela menderatzeko (kultura batzuetan, zerbait aipatzeak hori edukitzea esan nahi du, eta horrek inplizituki aitortzen du juduen tradizioaren araberrako Genesiaren kontakizuna: Adanek sormenaren erregearen rola du gainerako izakiei izena jartzeko gaitasuna eta aukera izan zituelako) dela askatzeko (hortxe gure leinuaren hoherena ordezkatzeko duten poeten, filosofoen eta iraultzaileen, hain zuzen ere beren buruak "*egiaztat, justiziaztat eta edertasunzatat*" dituztenen rola).

Bestalde, boterera iristen diren pertsona, kasta, erakunde edo alderdi guztiek kontu handia izan ohi dute beren diskurtso propioa eta kontakizun propioa osatzerakoan ("*storytelling*", hala esaten zion Christian Salmon CNRS Centre National de la Recherche Scientifique-ko kide eta idazle frantsesak teknika horri, estatuaren gezurraren eta iritzi publikoaren kontrol tresnari, hain zuzen, eta hala du izena bere liburu famatuak) eta hiztegi berria, esanahi multzo propioa eta batere inozentea ez dena ezartzerakoan, batzuetan modu zolian beste batzuetan lotsagabea, baina beti modu kontziente eta pentsatuan.

1984 ("*gerra baķea da, askatasuna esklabotza da, ezjakintasuna indarra da*") erreferentzia literario iragarle bat baino gehiago da jada. Langileez hitz egiteko *giza baliabideak* eta antzeko esamoldeak entzuteran, onartzeran eta erabiltzeran ohitu gara, eta langileok gauza >>

bihurtu ditugu modu maltzurrean espirtu sentikorrei ez zaien iruditu hain mingarri edo lizun ondoren egin daitekeen edozer manipulazio (esaterako, horiek *erregulatzea*, hau da, horiei uko egitea agortutako pila bat baztertzen den bezala) eta gure belarriek sorpresarik edo istilurik gabe entzuten dituzte *alboķo kalteak* eta antzeko sintagmak, jarduera militarretan egoten diren biktima zibilak izendatzea saihesteko erabiltzen direnak. Horiek bi adibide besterik ez dira; hainbeste entzuten ditugu eta hain finkatuak daude, ezen pertsona gutxiri egiten baitzaie deigarri eta askoz gutxiagoren kontzientzia mintzen baitute. Oso froga gutxi behar dira onartzeko lengoaiarena ez dela, ezta pentsatu ere, botereari gutxien inporta zaion *konķista*; botereak beti pentsatuko du bere eskuduntzen eta pribilegioen artean hitzek zer esan nahi duten definitzea dagoela.

Idea horiek hartu nahi ditugu oraingoan hizpide, bada, eztabaida sortzeko eta hausnarketa egiteko, urtero-urtero TopASKEtetan egiten dugun bezala. Horretarako adituen laguntza ordainezina dugu. Horiek ezagutzaren eta jardueraren hainbat diziplinatan edo arlotan, lengoaiaren erabileran dira adituak, eta ondo baino hobeto ezagutzen dute zer den lengoia okertzea, nahastea edo manipulatzeko. Hona hemen horietako batuk: Alfonso Sastre eta Belén Gopegui idazleak, Antonio Álvarez Solís eta Maddalen Iriarte kazetariak, Iñaki Goioaga abokatua eta Vicente Romano komunikologoa. Hiru saioetako bakoitzari amaiera emateko, gure kultura elkartearen antzerki jatorriari jarraiki, emanaldi eszenikoak eskainiko dituzte Ramón Agirre aktoreak, Joxemari Carrere ipuin kontalariak eta Andoni Egaña bertsolariak. Eskerrik asko, beti bezala, zuen jarraipen, laguntza eta parte hartzeagatik.

Xabi Puerta
ASKEko lehendakaria
Alfonso Sastre Kultur Elkarte

www.aske.es
www.sastre-forest.com

Organiza:

logo
aske

ASKE
Posta Kutxatila / Apdo. 179
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tfno-Fax: 943-333-383

Colaboran:

logo
KM

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua

logo
dipu